


# ALDIZTI 2 alea

Aldizkaritza tailerra - 2019/06



## Animaliak



### Across

2. Oihanaren erregea
3. Lurzorotik arrastatzen dena
5. Hegan egiten duena
6. Oso astro ibiltzen dena
9. Hondartzetan agertzen dira
10. Ura tronpairekin sargatzen duena
11. Salto egiten duena
12. E snea ematen duena
13. Saguen bila joaten dena

### Down

1. Itsasoko animalia handiena
2. Hitzak errepikatzen dituena
3. Gasta asko gustatzen zaiena
4. Txanogorritsuren amamonari jan ziona
5. Pertsonen lagun mina
7. Zortzi hanka dituena
8. Txorizoa ematen duena



## Egileak:

Naroa, Ekiñe,  
Ainhoa, Eider,  
Iraide, Ane,  
Beñat, Aratz,  
Ibon, Mikel,  
Dylan,  
Luken, Joseba  
eta June



## **Jaioberri bat hilda agertu da auto baten inguruan, Arrasateko Galizia kalean**

Arrasateko Galizia kalean agertu da haurra hilda, auto baten inguruan. 12:00ak inguruan eman du abisua auzotar batek, eta Ertzaintzak dagoeneko emakume bat atxilotu du gertaerarekin lotuta. Izan ere, emakumeak erditu eta gero, umea lurrean botata utzi zuen, 15 urte soilik zituelako, eta ez zuelako umea nahi. Emakumea, ospitaleratu egin dute, eta bertan dago atxiloturik. Ertzaintzaren ikerketak, hala ere, aurrera jarraitzen du zer gertatu den zehatz jakiteko.

Neska jaioberriaren gorpua, plazenta eta guzti, 12:00etan gutxi gorabehera aurkitu dute, Santa Marina auzoko gizon batek abisua eman ostean. Dagoeneko jaioberriaren gorpua jaso eta eraman egin du Ertzaintzak, baina Galizia kalean eta inguruetan ikertzen jarraitzen du ikertzaile taldeak. Aztarnak jasotzeaz gain, auzotarrak ere elkarrizketatzen ari dira.




GOIENAK Santa Marinako auzotarrekin hitz egiteko aukera izan du. Auzoa “hunkituta” esnatu dela azpimarratu dute orokorrean.

**Egileak:** Eider Paredes eta Ainhoa Davila

## NOTRE DAME SUTAN

**Notre Dame** Parisen dagoen katedrala da, Frantziako arkitektura gotikoaren adibide garrantzitsu bat. Garaiko gizarteak kontaktu espiritual gisa hartzen zuen katedral hau. Oso ezaguna da orain dela urte asko sortu zelako eta gainera katedral honi buruz pelikula batzuk egin direlako (adibidez, “ El jorobado de Notre Dame”).



2019ko apirilaren 5ean, 18:50 inguruan, su hartu zuen Parisko Notre Dame katedralak. Astelehen hartan ke izugarria sortu zen eta sua oso azkar zabaldu zen, batez ere, katedralaren goiko aldean. Eraikinean zegoen dorre zorrotzaren egitura erori egin zen suaren ondorioz. Suhiltzaileak lekura joan ziren eta sua kontrolpean hartu nahian aritu ziren, hala egitea lortu zuten arte.

Oraindik ez dakigu nola sortu zen sutea, baina Notre Dame obretan zegoen sutea baino lehen, eta, horregatik, batzuek uste dute obra horiekin zerikusia izan zuela ezbeharrak. Kasua hobeto aztertzeko, Parisko Fiskaltziak ikerketa bat hasi zuen gertakariak gertatu eta gero.



Honi buruz beste bitxikeria bat da, adibidez, bisita gehien jasotzen dituen Europako eraikin historikoetako bat dela katedral hau (urtean hamabi milioi bisitari), eta, horregatik, sutea lekuko askok grabatu zutela.

Jendetza ugari bildu zen sutea ikustera, hunkituta eta negarrez haietako asko. Kantuak ere egon ziren. Emmanuel Macron presidenteak 20:00etan agerraldi bat egin zuen ezbeharretan parte hartzeari buruz, non, lanean aritu diren 500 suhiltzaileei eskerrak eman zizkien ere, beste gauza batzuen artean.

Mundu guztian zabaldu dira Notre Dame katedralaren sutearen ondorioz egon diren dolu eta elkertasun mezuak.

**Egileak:** Eider Paredes eta Ainhoa Davila



## ***Errealeko neskek irabazle***

Errealeko neskek kopa eskuetan hartu eta ospakizunean murgilduta dabiltza. Realeko neska taldeak Erreginaren kopa irabazi du ahalegin handia egin ondoren. Larunbat gauean, maiatzaren 11an, jokatu zen partida Athletico Madrilaren aurka. Koparekin alde egiteko faboritoak Madrileko taldea zen, baina errealekoek kopa eskuetatik kendu zioten.

Jokoa, Errealaren alde 2-1 bukatu zen. Jokoa oso interesgarria izan zen, biek kopa lortzeko dena eman zuten eta.

Telebistako komentariak Athletiko Madrilren alde zeuden eta oso nabarmena izan zen. Komentaristek esaten zuten denbora guztian Athletico Madrilak erremontatzea ondo egongo zela. Hurrengo baterako bien alde egotea hobe izango zela esan dute herritarrek.

Partida honek beste irabazle batzuk izan ditu: emakumeak. Feminismoaren aldeko partida bat izan da. Berriz ere futbol zelaia beteta bukatu da.

Errealeko neskek Gipuzkoan herriz herri ibili dira kopa erakusten ospakizun bezala. Arrasatera ere etorri ziren eta Arrasateko errealek guztiak plazan elkartu ziren kopa ikusteko.

Gu ere Arrasateko institututik errealeko neskek ikustera joan ginen ikusgarria izan zen orain dela urte asko ondoren titulu handi bat irabaztea



**Egileak:** Aratz Ezpeleta eta Beñat Iñarra



## Brawl Stars

Brawl Stars da **Supercell konpainiak** garatutako errealitate birtualeko bideo-joko bat. Helburua pertsoniak desblokeatzea da; beraz, zenbat eta pertsonaia gehiago desblokeatu, orduan eta kopa gehiago irabaziko dituzu. Hainbat pertsonaia daude, batzuk kopetan aurreratzeagatik ematen dizkizutenak, beste batzuk arraroak, oso arraroak, izugarriak, mitikoak eta legendarioak, kaxetan lortu ditzakezunak. Pertsonaia horiek desblokeatzeko batailetan eskuratutako fitxekin lortu diren kaxak ireki behar dira.

Helburua, lehen aipatu bezala, kopetan aurrera egitea da, eta horretarako, jokabide-motan eta mapa bakoitzean ondo dabilen eta laguntzen dizun pertsonaia bat aukeratu behar da. Brawlerrak bere mailaren eta aspektuaren arabera alda daitezke. Irabazteko partidaren bukaeraraino itxaron beharko duzu, kopak irabazteko edota bestela galtzeko. Kopa horiek irabazten zoazen heinean, brawler eta ekitaldi berriak desblokeatuko dituzu Kopen bidean.

**Hauek dira kopen bideko bawlerrak:** Shelly, jokia hastean lortzen da, Nita 10 kopekin lortzen da, Colt 60 kopekin, Bull 250 kopekin, Jessie 500 kopekin, Brock 1000 kopekin, Dynamike 2000 kopekin eta Bo 3000 kopekin. Beste guztiak kaxak zabalduz lortzen dira.

**Kaxak:** egunero 200 fitxa daukazu, eta kaxa urdin bat irekitzeko 100 fitxa behar dituzu, duplikadoreak ere badaude. Halaber, egunero fitxa estelar bat agertzen da, eta hamar lortutakoan, kaxa morea irabaziko duzu.

**Mapak eta ebentoak:** hainbat daude.

<b>Ebentoak</b>	<b>Mapak</b>
<b>Harribitxi harrapaketa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Meatze harritsua, Kristalen haitzuloa, Diskrezio gabeko perretxikuak, Heriotza gogorra, Lurrazpiko haitzuloa, Hilobi sakona, Leize isila, Meatze hondoratua, Izotzeko prismak, Lau izkinak, Oihartzun errebotatzailea, Ihesaldi zorabiagarria, Brrrum brrrum, Zatitze zelularra, Malgukizko tranpa.</li> </ul>
<b>Biziraupena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erreka Garezurra, Adreiluzko gazteluak, Gardostutako harrizarra, Dena edo Ezer ez, Mila laku, Haitzulo Sakona, Dilema bikoitza, Irlako inbasioa, Dunak, Aran ekaiztsua, Zeharbidea, Irakite-puntua, Bloke ibiltariak, Ekaitzaren begia.</li> </ul>
<b>Kutxa gotorra</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanoi leherkorra, aterpea, xahutzea, bigarren nahitaezkoa, liskar nahasia, jaurtiketa birakorra, ur arreak, izkinako sarea.</li> </ul>
<b>Izar-ehiza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tenpluko hondabideak, belardi traidorea, ezkutaketa, zezendegia, bikaina, prestatutako hilketa, odolaren lehortea.</li> </ul>
<b>Brawl baloia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Brawl estadioa, dribling hirukoitza, jokaleku borrokazalea, ezkutuko mendia, estadio izugarria, urez gainezka dagoen urmaela, pinball.</li> </ul>
<b>Setioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errobotizazioa, muntaia basatia, torlojuak eta dranbalak.</li> </ul>

**Egileak:** Ibon Kortabarria eta Dylan Moto

## MARRAZO ZURIA



**Marrazo zuria** (*Carcharodon carcharias*) ur gaziko arrain kartilaginosoa da, *Lamnidae* familiakoa.

Isuridoen familiakoa da, *Carcharodon* generoari dagokiona. Gorputza fusiformea du bereizgarri, bizkaraldea gris arbel-kolorekoa edo belzkara ageri duena, eta sabelaldea zurixka. Bular-hegats itzelen barruko aldean -zurixka baita- orban ilun bi dauzka. Buru zabala du, mutur zorrotz samar batean amaitzen dena.

Marrazo zuriak bere tamaina erdiko animaliak jaten ditu; batez ere: pinipedoak, baleen gorputzak, izurdeak, atun buruak eta batzuetan arrain txikiak. Gizakiei eraso egiten die. Marrazo gazteak krustazeo eta arrain txikiez, batez ere, elikatzen dira.

Marrazo zuriak itsas lehoiekin nahasten dituzte gizakiak bista txarra dutelako, baina zientifikoek esaten dute marrazo mota hauek ez direla arriskutsuak gizakientzat. Marrazo hauek beraien harrapakinak bizkor harrapatzen dituzte.

Marrazo zuriak arrautzen bidez ugaltzen dira, eta batez ere ur-epeletan uzten dituzte arrautzak. Marrazo helduak 6-10 arrautza botatzen ditu.

Arrautzetatik ateratzen marrazo hauek 40 dm-ko luzera izaten dute eta amarengandik joaten dira, beraien ez jateko eta beraien bizitza bakartia egiten dute.

**Egileak:** Ibon Kortabarria eta Dylan Moto

## GAZTEEK IZUGARRIZKO ADIKZIOA HARTU DIOTE MUGIKORRARI

Haien erabilera gomendatutako adina (13) baino lehenago mugikorra dute gure gazteek esaten dute datuek. Bestalde, helduek eta gazteek ordenagailuak informazio iturri fidagarria dela uste dute.

Neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dutela Interneta frogatuta dago. Gurasoek Interneten ondo kudeatzen jakiteaz arduratu behar dute, seme-alabek erabiltzeko gida ona izan dezaten. Jende guztiak badaki ezinbestekoa dela segurtasuna Interneten seme-alabak babesteko, baita linean dauden arazoak eta existitzen diren arriskuak ezagutzea ere. Izan ere, haurrek "linean" esperientzia didaktiko eta seguruak izan ditzaten, gurasoek behar dute: Interneten "online" eta "surfa" igarotzen dituzten haurrak mugatu.

Horrela, gazteek ezezagunekin hitz egitea ekidin egingo dute, eta erakutsi egin behar zaie ezin diotela inori haiei buruzko informaziorik eman. Horretaz gain, inoiz ez eman hurrari zure kreditu txartelaren zenbakia edo lineako gauzak erosteko erabil daitekeen beste edozein pasahitza edo zerbitzu edo "gune" egokitza sartzeko (webgunea).



**EGILEAK:** Ekiñe Carmona, Naroa Agirre eta Luken Ormaetxea.